

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

2017an Gasteizko udalerrian merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak

2016ko abenduaren 29an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2017ko urtarrilaren 30eko ALHAOn — 12. zk. — argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke www.vitoria-gasteiz.org baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute honako hauen ingurukoak jakiteko: eskabideak aurkezteko modua eta epea; entitate eskatzaileen betebeharrak eta obligazioak; diru-laguntzak justifikatzeko modua; formularioak (eranskinak); diru-laguntzaren publizitatea; azpikontratazioa; programaren aldakuntzak; beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna; arau-hausteak eta zigorrak; interpretazioa eta aplikatzekoa den araudia, eta abar.

2017ko martxoaren 17an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2017an Gasteizko hirigunean merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen alorretako enpresa txikiak ezarri nahiz modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programa arautuko duten oinarriak. Horrenbestez, oinarri horiek argitaratzen dira herritarrek jakinaren gainean egon daitezten:

1. oinarria. Diru-laguntzen ildoak

Merkataritza eta zerbitzu pertsonalen alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntzak.

2. oinarria. Diru-laguntzaren xedea

Gasteizko udalerrian txikizkako merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen alorreko enpresa txikiak ezarri, eraberritu eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea dute xede oinarri hauek —norgehiagoka baliatuko da horretarako—.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

3. oinarria. Enpresa eta pertsona onuradunen betebeharrak

Merkataritza-jardueraren bat duten pertsona fisiko nahiz juridikoak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, baldintza hauek betetzen dituztelarik:

1. 50 langile baino gehiago ez izatea.
2. Beren urteko negozio-bolumenak eta balantze orokorrak hamar milioi euro ez gainditzea.
3. Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25eko edo hortik gorako partaidetza edo lotura ez izatea bertan.
4. Eskabidean adierazten den lokalean merkataritza-jarduera bat izan beharko du enpresak, behintzat diru-laguntza eskatzen duenetik.

Enpresaren jarduera nagusia Ekonomia Jardueren gaineko Zerga dela eta finkatutako multzo edo epigrafe hauetakoren batekoa izatea:

64: Janari, edari eta tabako salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu 646: Tabako gaien eta erretzaileentzako artikuluen salerosketa, txikizka, eta 647.5: Janari eta edarien horniketa —tabakoa salbu—, makina automatikoen bitartez)

65: Janariez bestelako produktuen salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu: 652.1: farmaziak: botika eta osasun eta higiene produktuen salerosketa, txikizka; 654.3: airetiko ibilgailuena; 654.4: ibai eta itsasoko ibilgailuena; 654.5: makinena; 654.6: mota guztietako ibilgailuetarako gupil-azalen, banden edo aire-ganberena, eta 655: erregai eta lubrifikatzaileen salerosketa, txikizka).

662.2: Era guztietako salgaien salerosketa, txikizka.

691.1: Etxerako artikulu elektrikoen konponketa.

691.9: Kontsumoko beste ondasun batzuen konponketa, BISG (beste inon sartu gabeak).

755: Bidaia agentziak, 755.1 izan ezik.

971.3: Arropak pasaratzea eta konpontzea.

972. Ile-apaindegi eta edertasun zerbitzuak.

5. Enpresa Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren bi epigrafe edo gehiagotan alta emanda badago, onuraduntzat joko da baldin eta jarduera nagusia diruz lagun daitezkeen ataletako baten barruan sartzan bada eta zertzen diren ekintzak jarduera horri badagozkio. Jarduera nagusia zehazteko horretarako erabiltzen den azalera erabilgarria hartuko da aintzat.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, inolaz ere ez da diruz lagunduko merkataritza lokalean Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren 761. epigrafean jasotako jarduerarik gauzatzen duen enpresarik.

6. Gasteizko udalerrian kokatuta egon beharko du negozioaren lokalak —menpeko toki-erakundeak barne—, industrialdeetan izan ezik.

Negoziaren kokalekua zehazteari dagokionez —II. eranskina—, lokal jakin bat mugen barruan dagoela ulertuko da baldin eta establezimenduaren sarrera edo erakusleihoen zatirik handiena hala badago.

7. Sestra-lerroan kokatuta egon beharko du lokalak. Azoketako nahiz merkataritza zentro eta galeria pribatuetako establezimenduak ere aintzat hartu ahal izango dira. Ez dira finantzatuko gasolina zerbitzuguneetan kokatutako establezimenduak.

8. Administrazio publikoen aurreko zerga-betebeharrak egunean edukitzea, baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere.

9. Indarrean dagoen araudia zorrotz bete beharko da, hirigintza eta arkitekturari dagokiona nahiz osasun eta higienerari dagokiona. Ofizioz egiaztatuko da enpresa eskatzaileak arauzko obra-baimena duen, edo, bestela, behar bezala izapidetu duen dagokion erantzukizunpeko aitortpena.

10. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere (elkarteak, lanbide elkargoak eta abar).

11. 2016ko deialdian lokal beragatik laguntza jaso ez izana

4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

— Dena delako lokalean 2016ko ekainaren 25etik eskabideak aurkezteko azken egunera bitartean egiten diren inbertsio-proiektuetarako emango dira diru-laguntzak.

Behar bezala jaulkitako fakturen bitartez egiaztatu beharko dira egindako inbertsioak, gorago adierazitako datetan. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik bi hilabete pasa baino lehen ordainduta eta Gasteizko Udalari behar bezala aurkeztuta dauden diru-kopuruak bakarrik egotzi ahalko zaizkie diru-laguntzari.

Ildo horretatik, ekintza hauetarako jaso ahal izango da diru-laguntza:

— Merkataritza-lokala eraberritzeko obrak: merkataritza-lokala egokitu, berritu edo handitzeko egiten diren obrak oro.

– Merkataritza-lokalaren hornikuntza: aktibo finko berriko elementuetan egindako inbertsioak:

Jarduera nagusiarekin zerikusia duen makineria.

Merkataritza-altzariak.

Merkataritza errotuluak, eguzki-oihalak eta pertsianak.

Ekipo informatikoak eta kudeaketa-software informatikoa.

Lokala klimatizatzekeo tresneria.

Produktuei lotu gabeko segurtasun-tresneria.

Erosten diren egunetik (ordainagirian ageri den datatik) aktibo horiek gutxienez 2 urtez eduki beharko dira enpresan.

– Jarduera abian jarri edo merkataritza-establezimendua eraberritzeko aurreproiektu edo proiektu teknikoak kontratatzea.

– Lokalaren kalifikazio energetikoa lortzeak sortutako gastuak.

Diruz lagundu daitekeen jarduerak establezimenduan izango duen metro koadro erabilgarri bakoitzeko gutxienez 150,00 eurokoa izan beharko du diruz lagundu daitekeen inbertsioak.

Jarduera edo eraberritze proiektu teknikoan ageri den azalera erabilgarria aintzat hartuta zehaztuko da diruz lagundu daitekeen jarduerak izango duen azalera erabilgarria, biltegia eta komunak bazter utzita. Lokalean hainbat jarduera burutzen badira — batzuk diruz lagundu daitezkeenak eta besteak ez —, zuzenean diruz lagundu ezin diren jarduera horiei egotzi beharrekoak kendu egingo dira aurreko azaleratik. Jarduera- edo eraberritze-proiektu teknikorik aurkezten ez bada, diruz lagundu daitezkeen jarduerari dagokien Ekonomi Jardueren gaineko Zergan adierazten den azalera hartuko da kontuan, biltegi gisa baliatuko den azalera alde batera utzita, datu hori ageri bada.

5. oinarria. Ez dira diruz lagunduko:

– Garraio-kostuak, aseguruak, administrazioaren baimen, lizentzia eta antzekoengatik ordaindu beharreko tasak, edo bestelako zergak.

– Garraio-elementuak, telebistak edo telefono-terminalak erostea.

– Erakusteko eta probetarako artikulua, eta gerora salgai jar daitezkeen artikulua.

– Lokala erostea, esku-aldatze eskubideak, alokairu errentak, eta frankizietan sartzeko kanonak.

– Mantentze-gastuak edo piezak konpondu edo aldatzeko gastuak.

– Bulegoko materialari, tresnei eta antzekoei dagozkien gastuak.

– Finantza-errentamendu edo antzeko formulen bidez egindako inbertsioak.

– Ale bakoitzeko zenbateko garbia 50,00 eurotik beherakoa den edozein aktibo edo material erostea.

– “Merkataritza-lokalaren ekipamendua” zerrendan berariaz diru-laguntzari egotz dakioken gastu gisa ageri ez den beste edozein aktibo erostea.

– Diruz lagundu daitekeen edozein kontzeptu, baldin eta hornitzaileak diru-laguntza eskatzen duen enpresarekin lotura badu. ‘Lotura duen enpresa’ kontzeptuari dagokionez, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42.3 artikuluko definizioa aintzat hartuko da.

6. oinarria. Baliabide ekonomikoak

2017ko ekitaldiko udal aurrekontuetako 2017/08 22.4314.489.64 “Denda txikientzako laguntzak” partidaren kontura finantzatzeko dira deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak. 200.000,00 eurokoa da partida horren zuzkidura.

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariaren erabakia dela medio zuzkidura hori handitzerik izango da, baldin eta udal sail horrek 2017an ekonomia-jarduera sustatzeko kudeatzen dituen deialdietako edozeinetan soberako krediturik badago.

7. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldez aurretik Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Deialdia indarrean jartzen delarik zabalduko da eskabideak aurkezteko epea, eta deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 30 egun naturaleko epea igarotzen delarik bukatuko. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Deialdi honetako 3. oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituen entitate onuradunak laguntza eskabide bana aurkeztu beharko du berritze edo egokitze lanak egin dituen lokaletako bakoitzeko. Lokal bakoitzeko laguntza bakarra eskatu ahal izango da urtean.

8. oinarria. Diru-laguntzak emateko prozedura

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailari dagokio oinarri hauetan arautzen diren laguntzak kudeatzea. Hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratuko da horretarako, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zuzendariak, Enpresen Zerbitzuko buruak eta Merkataritza Zerbitzuko buruak osatua, zein arduratuko baita aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz, Merkataritza Zerbitzuko teknikariek txostena egin ondoren.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, eta, hortaz, aurkezten diren proiektuen arteko alderaketa egingo da.

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebaizpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak, hautatze- eta jarraipen-batzordearen proposamenaren ildotik.

9. oinarria. Ebazteko epea

Gehienez sei hilabeteko epean emango da ebazpena, interesdunek eskabidea aurkezten dutenetik kontatuta.

10. oinarria. Balioespen-irizpideak

1. Diruz lagundu daitekeen inbertsioaren zenbatekoa: 30 puntu arte.

— Diruz lagundu daitekeen inbertsioa —jardueraren metro koadro erabilgarri bakoitzeko— 150,00 eurotik 250,00era bitartekoa bada: 20 puntu.

— Diruz lagundu daitekeen inbertsioa —jardueraren metro koadro erabilgarri bakoitzeko— 251,00 eurotik 350,00era bitartekoa bada: 25 puntu.

— Diruz lagundu daitekeen inbertsioa —jardueraren metro koadro erabilgarri bakoitzeko— 351,00 eurotik gorakoa bada: 30 puntu.

2. II. eranskinean zehazten diren zonetakoren batean kokatutako inbertsio-proiektua (Erdi Aroko hirigunean, Gorbeia kalearen ingurua, Gasteiz hiribidearen ingurua, Zabalgunea, bigarren Zabalgunea eta Zaramaga): 30 puntu.

3. Enpresa eskatzailearen antzinatasuna —diruz lagun daitekeen ekonomi jarduera bera gauzatzen, diru-laguntzaren xede den lokalean— hamar urtekoa edo hortik gorakoa bada (EJZren arabera): 10 puntu.

4. 10 langile baino gutxiago dituzten enpresak (TC2 agiriaren arabera): 5 puntu.

5. Merkataritza-sozietateen partaidetzarik ez duten enpresak (eratze-eskrituren nahiz geroko aldakuntza-eskrituren arabera): 5 puntu.

6. B (edo goragoko) energia-ziurtapena: 5 puntu.

7. Bai Euskarari edo Bikain ziurtagiria dutela egiaztatzen duten enpresak: 5 puntu.

8. Aurkeztutako oroitidazkiaren kalitatea: 5 puntu.

9. Irisgarritasun-hobekuntza integralak: 5 puntu.

11. oinarria. Proiektuak balioestea eta diru-laguntza kalkulatzeko

Balioespena egiteko, diru-laguntza jaso dezaketen proiektuak alderatu egingo dira, 10. oinarrian adierazi diren balioespen-irizpideak aintzat harturik alderatu ere.

Eskabideak balioetsi ondoren, puntuaziorik handiena lortzen dutenek diruz lagundu daitezkeen inbertsioaren ehuneko 40ra arte eskuratu ahal izango dute. Bestalde, gutxieneko puntuazioa lortzen dutenek ehuneko 25era arteko diru-laguntza eskuratu ahal izango dute. Puntuaziorik handienaren eta gutxienekoaren arteko gainerako proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie diru-laguntzaren portzentajea kalkulatzeko.

Enpresa bakoitzari dagokion gehieneko laguntza kalkulatzeko, proiektuaren kokalekua aintzat hartuko da. Hain zuzen ere, hauek izango dira diru-laguntzaren gehieneko kopuruak:

– 180,00 euro jarduerarako azalera erabilgarriko metro koadro bakoitzeko, Erdi Aroko hirigunean, Gorbeia kalearen inguruan, Gasteiz hiribidearen inguruan, Zabalgunean, Bigarren Zabalgunean edo Zaramagan kokatutako proiektuak direlarik (II. eranskina). Diru-laguntza ezingo da izan, inolaz ere, 20.000,00 eurotik gorakoa.

– 150,00 euro jarduerarako azalera erabilgarriko metro koadro bakoitzeko, II. eranskinean adierazten direnez bestetan kokatutako proiektuak direlarik. Diru-laguntza ezingo da izan, inolaz ere, 16.000,00 eurotik gorakoa.

Diru-laguntza jasotzen duen jardueraren azalera erabilgarria deialdi honetako 4. oinarrian xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

Hamargarren oinarrian adierazten diren irizpideak aintzat harturik balioesten direlarik guztira lortzen dituzten puntuazioen arabera ordenatuko dira diru-laguntza jaso lezaketen proiektuak.

Guztira lortutako puntuazioaren arabera ezartzen den hurrenkera horri jarraiki emango dira diru-laguntzak, harik erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte. Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, diruz lagun daitezkeen inbertsioaren zenbatekoaren atalean –10. oinarriaren lehen puntuazioa– lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko. Berdinketak jarraituz gero, 10. oinarriko 2. atalean –II. eranskinean zehazten diren zonetakoren batean kokatutako inbertsio-proiektua– lortutako puntuazioa hartuko da aintzat. Azkenik, berdinketak jarraituz gero, lehenago aurkeztutako eskabideari emango zaio lehentasuna, eskabideari Gasteizko Udalaren Erregistroan sarrera noiz eman zaion kontuan izanik.

Baldin eta geratzen den saldoa ez bada aski baliagarri dagoen kreditua agortzen duen diru-laguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua ordainduko zaio horri.

12. oinarria. Ordaintzeko modua

Dena batera ordainduko da laguntza, deialdia ebatzi ondoren, eta hamabosgarren oinarrian adierazitakoa justifikatu ondoren.

13. oinarria. Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresa edo pertsonen betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Udalaren egiaztatzeko ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

2. Udal laguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako diru-laguntza edo laguntzarik jasoz gero, Udalari jakinaraztea.

3. Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.

4. Laguntza eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren eskura jartzea.

5. Diru-laguntza eman ondoren, norako eman den, establezimendu horretan bideratzea ekonomia jarduera gutxienez bi urtez. Adierazitako epe hori igaro aurretik ixten bada establezimendua, enpresa onuradunak jakinarazi egin beharko dio Udalari, eta emandako diru-laguntzaren zati bat itzuli, jarduera bertan behera geratzen den egunetik bi urteko epe hori —diru-laguntza eman zen egunetik— betetzeko falta den denborarekiko proportzioan. Salbuespen gisa, ez da jasotako diru-laguntza itzultzeko eskatuko, eman zenetik bi urte igaro ez badira ere, jabeak gaixotasun larria duelako edo hil egin delako ixten bada negozioa.

Jarduera Gasteizko udalerrian kokatutako beste lokal batera aldatzen bada, baloratu egingo da jardueraren lokal berrian diruz lagundutako inbertsioei eusten zaien, eta jarduera lekuz aldatzen den egunean bi urteko iraunaldia osatzeko falta den denbora-tartea —diru-laguntza eman zen egunetik— kontuan hartuko da. Irizpide horiek oinarritzat harturik, enpresa onuradunak itzuli beharko duen diru-laguntzaren zati proportzionala kalkulatu da.

14. oinarria. Bestelako laguntza eta diru-laguntzekiko bateraezintasuna

Programa honetan aurreikusten diren laguntzak ezingo zaizkio gehitu gastu beretarako bestelako laguntzei.

15. oinarria. Nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie diru-laguntza eskabideei:

- Eskabide-orria eta zinpeko aitorpena (I. eranskina).
- Pertsona fisikoa bada: nortasun-agiriaren kopia.
- Pertsona juridikoa bada:

IFZren kopia.

Enpresaren eratze-eskiriturak nahiz geroko aldakuntza-eskiriturak, enpresaren ordezkariari eta helbide sozialari eragiten dietelarik.

Ordezkaritza-ahalmenak.

Ordezkaritza-ahalmena duen pertsonaren nortasun-agiria.

— Soldatapeko langilerik ez badu, azken hilabeteko autonomo ordainketaren ordainagiria eta enpresaburuaren jarduera-ezaren egiaztagiria.

— Soldatapeko langilerik badu: TC 12 edo azken hilabeteko langileen zerrenda izenduna

— Azalpen-txostena, zeinen baitan, gutxienez ere, informazio hau bildu beharko baita:

Enpresaren eta lokalean garatzen den enpresa-jardueraren deskribapena.

Merkataritza-lokalaren ezaugarriak (kokalekua, banaketa eta abar).

Merkataritza-lokalean egindako inbertsioen nahiz eraberritze-lanen deskribapen zehatza eta banakatua, horien helburua adierazten delarik, eta negozioaren lehiakortasunarekin duten zerikusia (eraberritu aurreko eta ondorengo argazkiak eransten badira, hori ere balioetsiko da).

Lokalean irisgarritasun hobekuntza integralak egin badira, horien deskribapen zehatza egin eta argazkiak erantsi, adierazitako puntuazioaren arabera balioesterik izan dadin.

— Establezimenduari dagokion jabetza-agiri edo alokairu-kontratuaren kopia. Lokala alokatzeko kontratuan berariaz adierazten ez bada, eraberritze-obrak egiteko baimena, errentatzaileak emana.

— Halakorik izanez gero, kontratatutako proiektu teknikoaren kopia, non lokalaren azalaren banaketa islatzen den.

— Energia-ziurtapenaren kopia, halakorik izanez gero.

– Bai Euskarari ziurtagiriaren kopia edo Bikain ziurtagiria lortu izana argitaratzen den EHAA-ren orriaren kopia, halakorik izanez gero.

– Fakturen kopiak.

– Fakturen ordainketaren egiaztagiria: ez da dirutan egindako ordainketen egiaztagiririk onartuko —ezta enpresa hornitzaileen kobrantza-egiaztagiririk ere—, salbu eta hornitzaile beraren faktura bat edo faktura multzo bat bada, guztira 2.500,00 eurotik beherakoa, eta haietan ordaintzeko beste modurik adierazten ez bada.

Gainerako kasuetan, ordainketaren banku-egiaztagiria aurkeztu beharko dira. Ez da onartuko enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola argi eta garbi gera dadin nahikoa daturik jasotzen ez duen banku-egiaztagiririk. Era berean, ez dira egiaztagiri gisa onartuko internet bidez eskuratutakoak, banku-erakundeak balioztatuta edo zigilatuta ez badaude.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik bi hilabeteko epea egongo da fakturen ordainketa-egiaztagiria aurkezteko.

Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionean, ofizios begiratuko da pertsona/enpresa eskatzailea egunean dagoen, baita arauzko obra-baimenak dituen ere.

Eskabidea aurkezteak Gasteizko Udalari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskatzeko baimena ematea dakar berekin (I. eranskina). Hala ere, eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimen hori. Horrela bada, Arabako Foru Aldundirekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak ordainduak dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

16. oinarria. Akatsak zuzentzea

Eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako agiriak eransten, hamar eguneko epea emango zaie eskatzaileei falta zaizkien agiriak aurkezteko —Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ildotik—, eta halaber ohartaraziko hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitakotzat joko dela.

17. oinarria. Konfidentzialtasun-klausula

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera, Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak "Sailaren jardueren kudeaketa" izeneko fitxategian sartuko dituela —Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek—. Horien gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko martxoaren 21ean

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI

I. eranskina: Laguntza eskabidea eta zinpeko aitortpena

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/00/33/60033.pdf>

II. eranskina: Erdi Aroko hirigunea, Gorbeia kalearen ingurua, Gasteizko hiribidearen ingurua, Zabalgunea, Bigarren Zabalgunea eta Zaramaga

Erdi Aroko Hirigunean, Gorbeia kalearen inguruan, Gasteiz hiribidearen inguruan, Zabalgunean, bigarren Zabalgunean eta Zaramagan sartutako kaleen plano orientagarria



Erdi Aroko Hirigunean, Gorbeia kalearen inguruan, Gasteiz hiribidearen inguruan, Zabalgunean, bigarren Zabalgunean eta Zaramagan sartutako merkataritza eremua mugatzen duten kaleen zerrenda

Hegoaldean	Iparraldean
Trenbidea Carmelo Bernaola ibilbidea Teodoro Dublang Margolariaren kalea (23.etik 53.era arteko bakoitiak)	San Viator kalea (1.etik 11.era arteko bakoitiak) Konstituzio plaza Arriagako Kofradiaren kalea (bakoitiak) Arriagako atea (27.a eta 29.a) Gasteizko Taldearen kalea (2.etik 16.era arteko bakoitiak) Azazeta Mendatearen kalea Urkiola Mendatearen kalea Zaramaga kalea (bakoitiak)
Mendebaldean	Ekialdean
Ignacio Diaz Ruiz de Olano Margolariaren kalea, 21 Buztinzuri kalea (zenbaki bakoitiak) Adriano VI.aren kalea (Pedro Asua kalearen eta Buztinzuri kalearen arteko bakoitiak) Pedro Asua kalea (Mexiko kalearen eta Adriano VI.aren kalearen arteko bakoitiak) Mexiko kalea (Txile kalearen eta Tomas Zumarraga Dohatsuaren arteko bakoitiak) Txile kalea (bakoitiak) Gasteiz hiribidea (85.etik 87.era arteko bakoitiak) Bolivia kalea (bakoitiak)	Betoñuko atea (2.a eta 4.a) Burgos kalea (1.a, 2.a eta 4.a) Ballester Apezpikuaren kalea (bakoitiak) Kalonjeen zidorra (10.a eta 11.a) Herrandarren kalea (86.a eta 88.a) Estenaga Apezpikuaren kalea (10.a) Herrandarren kalea (1.etik 45.era arteko bakoitiak) Done Jakue hiribidea (2.etik 6.era arteko bakoitiak) Jose Mardones kalea (7.etik 11.era arteko bakoitiak) Diego Martinez de Alaba kalea Olaguibel impares del 33 al 49) Joan XXIII.aren kalea Triana kalea (Florida kalearen eta trenbidearen arteko bakoitiak)